

Egitarauak, herriz herri

AJANGIZ

Abenduaren 26tik 30era.

-10:00-13:00: Patricia Diez artisauren eskutik, Gabonetako apaingarrien tailerra, kultur etxean, material eta teknika desberdinekin.

Urtarrilaren 2tik 5era.

-10:00-13:00: Jolas gidatuak eta tailerrak, kultur etxean. Azken egunean, hamaiketako.

ARRATZU

Bihar, zapatua.

-18:30: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Arrolatik jaitsi eta Loiolatik pasatu ostean, frontoian opariak banatuko dituzte.

Abenduak 27, martitzena.

-11:00-14:00/16:00-19:00: Simulagailuak, ume zein nagusientzat, frontoian.

Abenduak 28, eguaztena.

-17:00: Onditiz Mendizabal ipuin kontalariaren eskutik, *Sormening*.

Abenduak 29, eguena.

-18:00: Ume eta helduentzako egurrezko jolasak, frontoian, Zurezkuren eskutik.

Urtarrilak 3, martitzena.

-16:00: *Cuento de Navidad Abao Txiki* ikuskizuna ikustera joango dira Arriaga Antzokira. Autobusa Loiolan hartuko da.

Urtarrilak 4, eguaztena.

-10:30-13:00: Zaldiekin ibiltzeko aukera, Loiolan batu ostean.

BERMEO

Gaur, barikua.

-19:00: Gospel Bilbao kontzertua, Santa Maria Elizan. Doan.
-20:00: Kanta Kanta Lorue herri-
tik abesteko ekimena. Goiko Plazan batuko dira.

Bihar, zapatua

-Goizez: Puzgarriak, igerilekuan.
-11:30: Gabonetako Esku Pelota txapelketa, Artza frontoian.
-Arratsaldean: Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Goiko Plazan.

Etzi, domeka

-13:00: Eguberriko meza abestua, San Frantzisko elizan.

Abenduaren 27-urtarrilak 6

-Izotz pista, Lameran.

Abenduak 29, eguena

-Goizez: Gabonetako eskubaloi txapelketa, Araneko kiroldegian

eta San Frantzisko ikastolan.

-18:00: *Amets Pirata* txotxongi-
loak, udal liburutegian.

Abenduak 30, barikua

-Goizez eta arratsaldean: Gabonetako eskubaloi txapelketa, Araneko kiroldegian eta San Frantzisko ikastolan.

-20:00: Gabonetako kontzertua, Izaro abesbatzaren eskutik, San Frantzisko elizan.

Abenduak 31, zapatua

-Goizez: Puzgarriak, igerilekuan.
-11:30: Gabonetako Esku Pelota txapelketa, Artza frontoian.

Urtarrilak 5, eguena

-18:00-20:00: Errege Magoak, Artza frontoian.

BUSTURIA

Bihar, zapatua.

-17:00: Olentzero eta Mari Domingik Axpen hasiko dute ibilbidea.

Urtarrilak 4, eguaztena.

-18:30: Arpa kontzertua: Begoña Antruejo, Leonor Hennequet eta Maria Llanos, Kultur Etxean, doan.

ELANTXOBE

Bihar, zapatua.

-Iluntzean: Olentzero kaltzadan behera.

Urtarrilak 5, eguena.

-Iluntzean: Hiru Errege Magoak kaltzadan behera.

ERRIGOITI

Bihar, zapatua.

-18:30: Olentzerori harrera, Urian.

Abenduaren 26tik 30era.

-11:00-14:00: *Pertsona guztiak mugitzen gara* tailerra, Uriako ludotekan.

FORUA

Bihar, zapatua

-11:00: Olentzero, Baldatikan.
-12:00: Olentzero, San Kristobal.
-13:00: Olentzero, udaletxean.
Bitartean, txistorra jana.

GAUTEGIZ ARTEAGA

Gaur, barikua.

-12:00: Olentzerok Montorre eskola bisitatuko du.
-Arratsaldean: Montorre Guraso Elkarteak antolatuta, eskolako umeek kantatuko dute.
-19:30: Gautegiz Arteagako Abesbatzaren emanaldia, elizan, Olatz Telletxeak zuzenduta.

Bihar, zapatua.

-16:30: Olentzeroren desfilea hasiko da Kanaleko Baselizan. Auzoak igaro ondoren, 18:45ean ailegatuko da herriko plazara.

GERNIKA-LUMO

Gaur, barikua.

-13:00-14:30: Arrapaladan taldeagaz trikipotea, San Juan Ibarra eta Erreterria inguruan.

-18:00: Txokolate jana, San Juan Ibarra.

Bihar, zapatua.

-18:00: Andra Mari elizaren atzealdean Olentzero eta Mari Domingiri harrera. Kalejira Foru Plazan amaituko da.

Abenduak 31, zapatua.

-18:00: Sareren mobilizazioa, udal plazatik hasita.

Urtarrilak 1, domeka.

-00:30: Gabon Zahar jaialdia, Astran.

-01:00: Kotilloia Jai Alai frontoian, Xaiborrek antolatuta. 35 urtetik gorakoentzako jaia, bi gunetan banatuta.

Urtarrilak 2, 3 eta 4, astelehena, martitzena eta eguaztena.

-11:00-13:00/16:00-20:00: Gabonetako jolas parkea, Jai Alai frontoian.

Urtarrilak 5, eguena.

-13:00-15:00: Arrapaladan taldeagaz trikipotea, San Juan Ibarra eta Erreterian.

-17:30: Erregien desfilea, tren geltokitik.

IBARRANGE-LU

Bihar, zapatua.

-16:30: Ibiñako biritxak hasita, kantu saioa, kalerik kale.

-18:30: Olentzero eta Mari Domingiri harrera, udaletxe aurrean.

Abenduak 29, eguena.

-18:00: *Uretako ipuinak* ipuin kontalaria, kultur etxean.

KORTEZUBI

Gaur, bihar, etzi eta abenduaren 27an.

-20:00: Gabonetako zaldi probak, probalekuan; bihar 17:00etan izango dira.

Bihar, zapatua.

-18:00: Olentzero, Omako txoko-

an.

Urtarrilak 5, eguena.

-17:00: Erregeei ondoetorria emateko jaiari hasiera, frontoian, Ehunzangoren jolasak.
-19:00: Txokolate janagaz batera, Erregeei ongietorria.

MORGA

Bihar, zapatua.

-16:30-19:30: Tailerrak (globofexia, aurpegi margotzea, eskulana) eta puzgarriak, Andra Mari-riko frontoian.

-Ostean: Ongietorria Olentzerori eta Mari Domingiri, Lehendakari Agirre Enparantzan.

MUNDAKA

Gaur, barikua.

-18:00: Gabonetako pelikula, Gaztelekuan.

Bihar, zapatua.

-Arratsaldean: Olentzeroren etorrera, Eleizako Arkupeetan.

Abenduak 26, astelehena.

-17:30: Opariak ireki, Ludotekan.
-18:00: Pudina sukaldatuko dute, Gaztelekuan.

Abenduak 27, martitzena.

-Goizean: PINera irteera. Izen ematea: Gaztelekua eta Ludoteka.

Abenduak 28, eguaztena.

-17:30: Gabonetako Pelikula, Ludotekan.

Abenduak 29, eguena.

-17:00: Gabonetako Apaingarrien Tailerra.

Abenduak 30, barikua.

-17:00: Gabonetako Apaingarrien Tailerra.
-17:30: Musika Festa, Ludotekan.

Abenduak 31, zapatua.

-Goizean: Urteko azken bainua, Mundakako Surf Taldeak antolatuta.

-Arratsaldean: San Silbestre lasterketa.

-Egunez: Eskubaloi eta futbito partiduak, kiroldegian.

MURUETA

Bihar, zapatua.

-15:30: Olentzero eta Mari Domingi etxez etxe opariak banatuz, udaletxetik hasita.

Abenduak 27, martitzena.

-09:30-13:30: Umeentzako Negu Eskola, Ludotekan.

Abenduak 30, barikua.

-18:00: *Murueta Films 2022*, udaletxeko bilkura aretoan. Ostean, pintxopotea Kantu Kantarigaz, udaletxetik hasita.

Abenduak 31, zapatua.

-10:00: Murueta Ezagutuz ibilaldia, Eleizaldetik hasita.

Urtarrilak 3, martitzena.

-09:30-13:30: Umeentzako Negu Eskola, Ludotekan.

Urtarrilak 5, eguena.

-15:30: Errege Magoak etxez etxe opariak banatuz.

MUXIKA

Bihar, zapatua.

-10:40: Olentzero eta Mari Domingi auzorik auzo ibiliko dira, Okanan hasita. 15:45ean Kurtzeron amaituko dute bidea. Postal eta argazki lehiaketako irabazle-
en sariak emango dituzte.

Abenduak 27 eta 29 eta urtarrilak 2 eta 3.

-17:00-19:00: Umeentzako eskulan tailerrak, Zubieta Errotan, AEIOU Busturialdearen eskutik.
Urtarrilak 4, eguaztena.
-10:00: Gabonetako Umeen Parkera irteera. 17:00etan bueltatuko dira.

NABARNIZ

Bihar, zapatua.

-19:00: Olentzerok goxokiak banatuko dizkie umeei, frontoian.

Abenduak 27, martitzena.

-16:00-20:00: Umeentzako parkea, frontoian. Ondoren, txokolate beroa.

Abenduak 29, eguena.

-09:30: PINera irteera. Herriko plazatik irtengo dira (18:00etan bueltatu). Izen ematea: udalean, abenduaren 27a baino arinago (udalak ez du arduradunik jarriko eta 18 urtetik beherakoak heldu bategaz joan beharko dira).

SUKARRIETA

Bihar, zapatua.

-18:00: Olentzero, parkean.

Abenduak 30, barikua.

-17:30: Gabonetako tailerra: turroia, Ludotekan (alergiak jakinarazi izena ematean).

Urtarrilak 4, eguaztena.

-17:30: Gabonetako tailerra: Kaleidoskopioa, Ludotekan. Oharra: tailerrak 4-12 urte artekoentzat dira, edukiera mugatua da, eta sukarietarek daukate lehentasuna. Udaletxean izena eman behar da: 94-687 07 15 /udala@sukarrieta.eus.

